

GIZARTE BALIABIDEEN BEHATOKIA

IRAKASGAIAREN BIGARREN LANA

GIZARTE PRAKTIKA ONAREN DISEINUA ZURE AUZOAN/HERRIAN

Gizarte Baliabideen Behatokia irakasgaiaren bigarren lana, lurralde jakin baten inguruko (auzoa, herria...) Praktika On baten diseinuan datza. Babes sistema bat hartuko da ardatz bezala, eta ingurune zein sistemaren testuinguraketa egin beharko da.

Lana lau pertsonen¹ osaturiko taldetan egingo da; lehenengo lanerako egon diren taldekide berdinak egongo dira, ezintasun sendoak dauden kasuak salbu.

Lanean egin beharreko lehenengo eginkizuna, bilaketa bibliografikoa dela medio **aukeratutako babes sistemaren** testuinguraketa izango da. Hau burutzeko, EA Eren eta aukeratutako lurraldearen babes sistemaren aurkezpen orokorra eta eskumen-markoaren azalpena egin behar da alde batetik, eta bestetik, horrekiko egiten den esku-hartze publikoaren deskribapena egin behar da, batez ere, lurraldeari eragiten dioten politika eta programa publikoei erreparatuz. Jasotako informazioa sistemaren baliabideen aurkezpen sistematizatuarekin osatuko da eta sistematizazioarekin batera baliabideen inguruko hausnarketa eta analisi kritikoa eskeiniko da.

Lanaren bigarren fasean, aukeratutako babes sistemarekiko lurraldearen **beharrei hurbilpena** egin beharko da. Gerturatze hau, egunkarien eta tokiko aldizkarien analisiaren bitartez, lurraldeko erakunde, elkarte edo pertsonekin kontaktuak eginez, eta ikerketa objektuarekin harremana duen dokumentu eta bibliografia azterketa direla medio egingo da. Kontaktuak auzo/herriaren elkarte baten ordezkariekin edo lurralde horren errealitatea edo babes sistema ondo ezagutzen duen batekin egingo dira.

Hirugarren fasean, aukeraturiko gaiaren inguruan **praktika onen gainbegiraketa sistematizatua** egingo da, babes sistemaren egoera hobetzeko eredu eta adibide izan daitezkeenak. Horretarako, praktika onen material zein gidak eskainiko ditu irakasleak. Taldeek bere aztertutako egoerarekin harreman handien duten hiru praktika onak aukeratu beharko ditu. Hauen balorazioa egin beharko du, alderdi positibo eta negatiboak nabarmenduz eta aurrez egindako beharrei hurbilpena ebaluazio irizpide bezala erabiliz.

¹ Lana indibiduala izango da azken ebaluazioa egiten duten pertsonen kasuan.

Laugarren fase honetan, **praktika on bat diseinatu eta garatu** beharko da, aurretik egindako testuinguratzean planteatutako beharrei erantzungo diena. Horretarako, jadanik analizaturiko praktika onen bat lan bakoitzaren testuingurura doitu daiteke, baita praktika on berri bat asmatu ere. Beti ere irizpide errealistak eta egingarriak erabili beharko dira egiten den proposamenean.

Idatzitako lanaz aparte, proposaturiko Praktika Ona publikoki aurkeztu beharko da **marketing ferian** (posterrak, triptikoak, ahozko aurkezpen erakargarriak...). Feria hontara etorrera derrigorrezkoa da ebaluazio jarraian dabiltzan guztientzat.

Laburbilduz, bigarren parte honen lanak zenbait eginkizun ditu:

1. Aukeratutako babes sistemari buruzko informazio, datu eta bibliografiaren bilaketa.
2. Auzo/herriko aukeratutako babes sistemari buruzko informazio, datu eta bibliografiaren bilaketa.
3. Babes sistema eta aukeratutako lurraldearekin harremana duten egunkarietako berrien analisia.
4. Auzo/herriaren beharrak detektatzeko lurraldeko informatzaileekin kontaktuak.
5. Gaiari buruzko praktika onen bilaketa.
6. Analizatutako errealitatearekin harremana duten hiru praktika onen aukeraketa eta berauen analisi kritikoa.
7. Ekintza proposamen zehatza egitea, lortutako informaziotik abiatuz.
8. Marketing ferian praktika onaren aurkezpena eta defentsa.

Ebaluazioa eta entregatze-datak

Irakasgaia gainditzeko, lan hau entregatu eta gainditzea beharrezkoa da.

- Ebaluazio jarraia: nota osoaren %45a
- Azken ebaluazioa: nota osoaren %40a

Lana entregatzeko epe-muga: maiatzaren 17a². Azken ebaluazioa egingo dutenek, lana ekainaren 7an entregatu ahal izango dute (ohiko deialdiaren azterketaren data).

² Lana aurretik aurkeztu beharko da, Marketing Ferian.

2. lana egiteko gidoia³

1. Sarrera (Helburuak, antolakuntza, lurraldearen testuinguratze laburra...)

2. Aukeratutako lurraldean babes sistemaren testuinguratze eta analisisa

- Aukeratutako babes sistemaren testuinguraketa
 - Babes Sistemaren aurkezpen orokorra
 - Arloan eskumenak dituzten erakundeak
- Aukeratutako sistemari buruzko esku-hartze publikoa (lurraldean eragina duten politika eta programa publikoak)
- Lurraldean dauden aukeratutako sistemaren⁴ gizarte baliabideen panoramika laburra.

3. Sistemaren beharrei hurbilpena⁵

- Erabilitako informazio iturriak
- Sistemaren alde negatiboak eta positiboak

Alde negatiboak	Alde positiboak

- Identifikaturiko sistemaren beharrak

4. Aukeratutako sistemarekin harremana duten Praktika Onen gainbegiraketa

- Aukeratutako hiru praktika onen aurkezpena (*)
 - Praktika On bakoitzaren deskribapena (*sortze-testuingurua eta aplikazioa, helburuak, iraupena, nori zuzenduak dauden, ekintzak, ebaluazio sistema*)
 - Gogoetak: lortutako emaitzak eta balorazio kritikoa (ikuspuntu positibo eta negatiboak)

5. Praktika Onaren proposamen eta diseinua

- Izena eta deskribapena
- Aurrekariak eta justifikazioa
- Babes sistemaren barruan testuinguraketa
- Praktika Onaren elementu definitzaileak⁶
- Helburuak
- Hartzaileak
- Iraupena
- Ekintzak
- Praktikan jartzeko beharrezko baliabideak
- Ebaluazio sistema
- Balorazioa (*)⁷

6. Ondorioak

Bibliografia

(Eranskinak)

³ Gidoi honetan proposaturiko azpi-tituluak, ikerketako helburu konkretuari egokitu beharko dira.

⁴ Lehenengo lanak jasotako baliabideak hemen jarriko dira, eta egotekotan, ondoren egindako analisian sortu daitezkeenak ere. Ez da beharrezkoa bakoitzaren deskribapen indibiduala, **aurkezpen sistematizatu** baizik (**hausnarketa eta analisi kritikoa** duten elementuak dituela), ondoren egingo den analisirako baliogarri dena.

⁵ Sistemaren beharrei hurbilpena ondorengo iturrietatik jasotako informazioaren bitartez egingo da: egindako kontatua/k, egunkarietako artikuluen azterketa eta beste iturri batzuk: erakunde/instituzioen barne dokumentuak, erakundeetako web eta blogak, e.a.

⁶ Azpialan honetan praktika onaren hurrengo elementuak azalduko dira: zein baliabidek garatuko duen proposamena, zein erakundek du horren ardura (titulartasun, kudeaketa eta finantzaketa)

⁷ **Praktika onen proposamen eta balorazio**arako, ondorengo ezaugarriak hartu behar dira kontuan: berriztatzailea, beste leku batean egingarria, bideragarritasuna, jasagarritasuna, malgutasuna, eraginkortasuna eta hiritartasunaren partehartzea.